

Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Joxe Agirre Esnal

*Azpeitia,
Gipuzkoa
(1929-2012)*

Aurkibidea



Biografia



1929an jaio zen Azpeitiko Izarraitz auzoko Orandabekoa baserrian. Aita bertakoa zuen eta ama Getariako Aldazabal baserrikoa. Sei anai-arrebatan bigarrena zen. Eskolan Lasaon ibili zen 11 urtera arte eta gerora lanbide askotan ibilia, basoan eta harrobian, besteak beste. Umetatik izan zuen gertuan bertsolaritza mundua, aitona zenak piztu baitzion langintza horretarako grina. 1952an hasi zen bertsotan publikoaren aurrean. Txapelketetan ere parte hartua eta bertsolari onenekin plazaz plaza ibilia.

Zintak

AZP-027

- **Proiektua:** Azpeitiko ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k):** Otegi, Aitziber
- **Data:** 2009-09-09
- **Iraupena:** 62 min
- **Euskarria:** MiniDV
- **Kodifikatzailea:** Etxeberría, Eider
- **Transkribatzailea(k):** Oruesagasti, Ainitze

AZP-028

- **Proiektua:** Azpeitiko ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k):** Otegi, Aitziber
- **Data:** 2009-09-09
- **Iraupena:** 40 min
- **Euskarria:** MiniDV
- **Kodifikatzailea:** Lizeaga, Irati

Pasarteak

1. Eskolara joan nahi eta ezin

- **Erref:** AZP-027/003
- **Iraupena:** 0:01:26. **Hasi:** 00:04:38. **Bukatu:** 00:06:04
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Maisu-maistrak

Laburpena:

<p>Eskolan mutilak bakarrik ibiltzen ziren. Apaiz frankista bat zuten maisu. Eskolan oso gutxi ibili zen, etxean lanean geratu behar izaten zuelako, baina eskolara joateko gogoa izaten zuen.</p>

Transkripzioa

- E... eskolan neska eta mutil alkarrekin?
- Ez.
- Mutillek bakarrik?
- Bai.
- Bai, aaa.
- [...] ingo geldula bestela ta...
- Bazpare aparte. Ze maixu zittuzuen?
- Ba, guk apaiz bet.
- Apaiza?
- Apaiz eosgoor bat.
- Hemengoa, Lasaokoa?
- Ta frankistie gaiñea, hain zuzen.
- Al zan?
- Bai. "Cara al sol" ta dotriñie ikixi giñuzen guk!
- Derriorrezkok hoik?
- Bai, derriorrezko hoiek. Ni eskola hasi nitzeneako beatzi urte o banittun e... Badakizu hamendiken zihero umie... Oin bai, oin kotxiekin ematen ditue zearaiño ta, oin txikiten hasten die, ta utzi niyon hamaika urtekin ta ni ikeragarri gutxi ibilitekue naiz eskolan. Etxien ardiyek-eta bazien, eta gure aitte zanak izeten zun ardiyek zaitu ber ziela o beti zeoze... Goguen daket amona zanak aitte zanai erritan jarduten ziyola nik eskola jun nahi ta uzten ez ta nearrez ta [...] mutil koxkorra.
- Zuk jun nahi... jun in nahi?
- Jun in nahi nik. Ta "gu zuek bieldu ezinda ibiltzen giñen eskola, eta horrek jun in nahi te ez diyozu utzi ber?" ta gure aittei bere amak esaten zizkon hoiek, nere amonak. Holaxe ibiltzen giñen. Baiño ni oso gutxi ibilitekue naiz eskolan e!

2. Eskolako ikasgaiak eta debekuak

- **Erref:** AZP-027/004
- **Iraupena:** 0:01:25. **Hasi:** 00:06:04. **Bukatu:** 00:07:29
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Dotrina
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- Ohiturak eta bizimodua » Kantak » Kantei buruzko azalpenak
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Zigorrak

Laburpena:

<p>Eskolan Cara al Sol abestu behar izaten zuten egunean bitan. Eta dotrina ere ikasi behar izaten zuten. Dotrina ezik, gainerakoa erdaraz ikasten zuten. Euskaraz ez hitz egiteko zer zigor jartzen zieten azaltzen du.</p>

Transkripzioa

- Esan dezu 'Cara al Sol' kantau ber izaten zenduela?

- Hori bai, derrior.
- Goizeroko lana izaten zan?
- Eunien biten.
- Eunien biten?
- Eunien biten.
- Goiz ta atsalde juten ziñaten, eskola?
- Eee... bueno atsaldien bakarrik ibiltzen giñen gu, jeneralien.
- A, bai? Atsalden bakarrik?
- Gu bai, baiño 'Cara al Sol' pare bat aldiz kantatzen gendun hala're. Ta geo, dotriñie. Ordun dotriñie ikixtie zihero beharreko gauzie zan, badakizu? Ordun dotriñie ikixten ez baldin bazan ez zaon salbaziyoiken. Ta... hoixe, gaiñontzin ze ikixi gendun ba guk! Zeoze, eskribitzen ta're... baa, defenditzeko aiñe ikixi gendun baiño...oin jardun ez ta ahaztu ikixiteko [...]
- .
- Zuek dana erderaz ikasiko zenduen gaiñea?
- Guk... bai, bai. Bueno, dotriñie euskerazkue zan e...
- Gaiñontzekoa erderaz?
- Bai. E... zea bat ibiltzen gendun, medailla zahar haundi bet. E... euskeraz hitz eiten ikusten zanai hure eman ber. Zeukenak, nik banauken, nik ikusten banun beste bat euskeraz hitz eiten, nik hari eman ber, kastigu bezela.
- Kastigu bezela?
- Bai. Ibiltzen gendun... ta nik... uste det gaiñea neuk ibiltzen nula... euskeraz iten nun beti ta!
- Ba, besteik ez jakin ta!
- Jakin'e ez ta... hoixe ba.
- Ze ingo zendun ba!
- Hoixe ba, hoixe ba... hoixe ba.

3. Gerra eta orduko beldurra senitartekoen zoriarengatik

- **Erref:** AZP-027/006
- **Iraupena:** 0:03:15. **Hasi:** 00:09:39. **Bukatu:** 00:12:54
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939)
- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka

Laburpena:

Gerra atera zen eguna gogoratzen du. Espainiako bandera ez jartzeagatik, aitagorriekin zer elkarriketa izan zuen kontatzen du. Etxean ez zuten soldadurik izan, eta inguruan bonbarik ez zen egon. Hainbat senitartekok gerran ibili behar izan zuten soldadu. Etxean Elgeta inguruko bonbak entzuten zituzten, eta senitartekoak gaizki egongo ote ziren beldur egoten ziren.

Transkripzioa

- Nola goatzen zu e... gerra atea zan garaye? Gerra atea zan eunen zu hemen zeuden?
- Bai, bai.
- Eta... honea tropaiek eta alleau zan?
- E... honea reketiek eta alleau zien honea, ta bandera espainola zean hemen balkoi... Bueno, etxe hau ez zan hola ordun... Etxe hau oin dala hamalu urte o berritute dao, antzemango ziñon etxe hau eztala lengo etxetakue... Ta leyun eukitzeko bandera espainola, ta... gero behintzet,

reketiek eta etorrite ya gure aitte zanak gordeta zauken hure, gordeta o ixkutaute... ta reketiek etorri te ia zeatiken ez zun hure leyun, ia zeatiken ez zun... ta joe, bildurre ematen ziyola... alegiye, bazien orduen'e, ba, CNT-kuek o esaten ziyobenak eo, bestealdekekuk hola...

- Nola esan diozu?

- CNT.

- CNT?

- CNT, bai... esaten ziyobenak'e bazien... Ta hayek etorri te bandera española hamen harrapatzen baldin baziguen danok garbiuko giñuzela ta....

- Bai, aitzakien bat jarri ein ber.

- Bildur hori ez zun aukiko, baiño hori esan behintzet eta. Holaxe... ibili giñen.

- Euki zittuzuen etxen sartuta, reketek o?

- Ez... ez, ez.

- O soldaduik o hemen?

- Ez, hamen inguruen ta ibili bai, baiño ez.

- Bonbaik eta halakoik?

- Ez.

- Hemen ingurun ez zan izan?

- Ez. Hamen ingurun ez. Baiño nik bi osaba nittun Bizkaira junda. Ni akordatzen naiz hayek nola jun zin. Bi osaba...hamen, nere bi osaba hamendik eta beste bi anai Garatxabalkuak. Gero erakutsiko dizut. Gure amona Garatxabalkua zan, ta hangyak bi, lau lehengosu, ta beste bi o hiru o eztatik ze zien Bentaberritik, beste bat Lastaolatik, ta hure hil in zen gaiñea, bat hil in zen. Bestiek bizik ertetzeko suertie izen zen, kartzelak eta trabajadoriyek eta kristuek eta pasa zittuen, baiño bizik etorri zien bestiek. Ta gu nere aitte zanakin mutil koxkorra mendire jun da ardiyek... bille o izetea, ba, ardiyei beitzea o... ta, behintzet, aitzen zien ba, kriston danbatekuk, kaiñozazuek eta... hor e... Arrate alde hortan ta, Elgeta inguru hortan ta... hor kriston frentie eon zala ustet. Gogorra izen ber zun hor. Ta aitte zanak nola esaten zien goguen daket nik: "gure tio Joxe ta tio Luix te biziko ote dituk? Hortxe ibiliko dituk ba hayek! Ta biziko ote dituk?". Ta, jo, bildurrez amorratzen, izeten da ba. Ba, hiru urte pasa ta etorri zen bat, e! Gerrie bukau ta gero trabajadoratan eon... ta hiru urte pasata etorri zen bat. Bestie pixket lenuo etorri zen.

4. Garia entregatzeko pasatako komeriak

- **Erref:** AZP-027/007
- **Iraupena:** 0:02:24. **Hasi:** 00:12:54. **Bukatu:** 00:15:18
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean

Laburpena:

Baserrian bizi arren, gosea pasa zuten; izan ere, gari mordoa entregatu behar izaten zuten. Gariaren uzta urte batean ez zen ona izan, eta entregatu egin behar izaten zutenez, estutasunak pasa zituzten etxeko denei jaten emateko. Garia entregatu ahal izateko, batzuetan erosi ere egin behar izaten zuten.

Transkripzioa

- Goseik pasa zenduen?
- Joder! Askok ez, bakarra.

- Ta bea nahikoa.

- Bai.

- Bueno, baserritarrak hala're pixka bat defendittuko ziñeten...

- Bai, baiño gariye entregau ein ber izeten zan mordua kalea... Goiko Errotie o zan... oin botata han itxiek inda daude baiño..

- Nun zan... Goiko Errota?

- Kartzel... Oin anbulatoyue badao ba?

- Azpeitiko anbulatorioa?

- Bai.

- Bai.

- Hortikentxe, hortxe gertu zen Goiko Errotie... Hoi baiño pixket hautzo izengo zan eo, eztakit ze... bai, bai, hautzo izengo zan zeoze, hortxe inguru hortan.

- Eta hautza juten izaten hemendik?

- Eamanazi eiten ziguen garaye. Entregau ein ber izeten zan gariye. Mordua... hamabost [...] gari o... ta hau're basarriye hain haundiye ezta... Gari urte ona zanian ondo arreglatzen giñen, bastante baiño... Urte bat tokau zen aiñua o... Zuk eztakit aitu dezun behin'e? Aiñua esaten zan... hori izeten da gariyei burue beztu, beztu eiten zako. Ta...

- Zer da gariiek aukitzen dun gaixo bat? Gaixoa o...

- Gaixua, bai, bai. Ali izeten du ikearri exkaxa eta gutxi gaiñea. Zea lastazue hartu eta ipurdiyen karga geyo, buruen baiño. Ta, ikearri gari gutxi izen zan behintzet eta, entregatzeko're baiño gutxiyo... ta pentsau zauzu, hamahiru lagun inguruko familiye itxin ta... Nik hamahiru lagun ezautu nitun itxien, e!

- Hamahiru?

- Bai, urte hartan artien eongo giñen, baiño hamahiru ezautu nittun, bai! Ta, gure aitte zanak nola esaten zun goguen daket: "Hauek, txerri hauek hauek... ez daukeunai're kendu ite zoabe... Nunbaitetik gariya erosi itea? Dirua eongo zan ba [...] etxin? Ta, nola hala eaman behintzet ta... Gero etxien ze jan ber zan?

- Bai, hamalau lagun betetzeko...

- Hamahiru... hamahiru, hamahiru lagun ezautu nittun nik. Eztakit... oin esaten detan urte hortan... urte hori leno iual izengo zan... Esan nahi nuke osabak ta etorri baiño leno izengo zan hori, eztakit hori.

- Asike kanpotik erosten zenuen garie eta gero entregau?

- Bai, entregau.

- Ze izaten zan estraperloan erositako garie?

- Estraperluen?... Ez.

- Bestela?

- Bai.

5. Estraperloko errota garia ehotzeko

- **Erref:** AZP-027/008
- **Iraupena:** 0:01:44. **Hasi:** 00:15:18. **Bukatu:** 00:17:02
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Garia
- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean

Laburpena:

Errotak itxita egon ziren garaian, Joxeren osabak errota txiki bat ekarri zuen estraperloan, eta harekin ehotzen zuen garia. Errota hark nola funtzionatzen zuen azaltzen du.

Transkripzioa

- Estraperloa ezautuko zendun baita?
- Ezautuko ez nun ba!
- Zenen estraperloa eiten zan hemen? Ze... jatekona bakarrik o?
- Jode, gu... gure osaba oin esan detan osaba hoyetako batek ekarri zun errota txiki bet. Gariye etxien ta errotak itxite, ta gosik amorratzen. Pentsau zazu ze pasau giñuzen! Ta errota txiki bet ekarri zun, ta han ihotzen gendun... e... hola aker txiki bet ekarri zun, txikiye... ta harei eraitie nahiko zalle zan; akerra, eraitekua.
- Akerra deitzen diyozeue zuek? Bai?
- Bai... zuek eztakit nola deitzen diyozen?
- Eztakit sekula izenik jarri diyoten, bai... baiño eraiteko hari akerra esaten diyozeue.
- Bai, bai. Gero, gure osaba batek ein zuen, ba, gurdi... lengo gurdiyek jakingo dezu nolakuek zin? Zeak e... burnizko, burnizko...
- Burnizko gurpillakin?
- Bai, kurtuola esaten zitzekon hari. Halako bati oholak josi, zea... gurutzea josi hola... eta lehen esan dizuten aker hari soldiaute jarri hola beste hiru hanka. Hayek josi hari danak, ta harekin askoz'e errezo eraiten zitzekon. Nola buelta haundiyo [zitzon] harek. Askoz errezo eraiten zitzekon harekin. Ta... hure're, hure're estraperlokue zan hure'e... jakin ezkeo auskolo ze ingo ziguen, baiño jan be ez zeon, ba, eoteik!

6. Etxea errekisatzera etorri, baina zorte ona izan

- **Erref:** AZP-027/009
- **Iraupena:** 0:00:51. **Hasi:** 00:17:02. **Bukatu:** 00:17:53
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserrria » Baserriko lanak » Baserriko animaliak

Laburpena:

Etxera errekisatzera etorri izan ziren, baina ez zieten abererik eraman. Lehen zer ganadu izaten zuten azaltzen du. Ez zitzaion gustatzen artzain lana.

Transkripzioa

- Etxea rekisatzea ta ez zien etortzen?
- Ba, bai. Izen zien. Bai, bai, bai. Izen zien. Oin gure etxetiken behik eta holako zeaik eta ez zuen eman, e! Baiño, bai, bai etxie... joder!
- Zuek ganadu asko zenduen... hemen?
- Ez, asko're ez. Oin geyo, ordun baiño. Oin geyo eukitzen deu.
- Ordun ze ganadu eukitzen zenduen? Behiek?
- Ordun eoten zien gure etxin, ba, lau-bost bat behi. Ta geo ardiyek. Beste ardi mordoxka bat. Hirurogeita hamar bat ardi o larogei bet ardi o... hola. Aittek afiziyo haundi zun ardiyetako, ta nik ez det behin'e izen afiziyoik ardiyetako.
- Zu ez ziñen artzain behin'e ibili?
- Bueno, ibili nitzen, bai. Ibili bai baiño ez gogoz, gogo haundiyeekin e!

- Ez zan zure... gustoko.
- Ez, ez. Ez nun gogoik.

7. Etxe inguruko lurrak lantzeko modua

- **Erref:** AZP-027/010
- **Iraupena:** 0:02:43. **Hasi:** 00:17:53. **Bukatu:** 00:20:36
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserría » Baserriko lanak » Baserriko tresnak
- Baserría » Baserriko lanak » Baserriko animaliak
- Baserría » Baserriko lanak » Lurra lantzea

Laburpena:

<p>Baserri inguruko lurretan artoa eta garia lantzeko, idiekin moldatzen ziren. Gurdiak erabiltzen zituzten lurra lantzeko, eta gurdiak nolakoak izaten ziren deskribatzen du.</p>

8. Eskola bukatutakoan, idiekin lanean etxean

- **Erref:** AZP-027/011
- **Iraupena:** 0:01:18. **Hasi:** 00:20:36. **Bukatu:** 00:21:54
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserría » Baserriko lanak » Baserriko animaliak

Laburpena:

11 urterekin komunioa egin zuen, eta etxean aritu zen lanean idiekin hamar bat urtetan zehar. Lan hori jornalaren truke egiten zuen.

9. Harrobiko lana

- **Erref:** AZP-027/013
- **Iraupena:** 0:02:21. **Hasi:** 00:23:18. **Bukatu:** 00:25:39
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lanbideak » Etxeginak

Laburpena:

Loiolako harrobian egin zuen lan, eta zertan jarduten zuen azaltzen du. Lanean istripuak gertatzeko arrisku handia zegoen arren, han ibiltzen ziren. Harri haiek obrako materiala egiteko erabiltzen ziren.

10. Bertsotarako gaitasuna aitonarengandik etorritakoa

- **Erref:** AZP-027/014
- **Iraupena:** 0:01:22. **Hasi:** 00:25:39. **Bukatu:** 00:27:01
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa

Laburpena:

Bertsotan gaztetatik ibili izan da, baina ez zen gazterik hasi plazatan bertsotan. Bere aitonak zaletasuna eta gaitasuna bazuen bertsotarako, baina erreparoa ematen zion bere bertsoak kantatzeak, eta ez dituzte gorde ahal izan. Pena hori du Joxek.

Transkripzioa

- Eta bertsotan noiz hasi ziñen?
- Bertsotan ez nitzen ni oso gazteik hasi. Bueno, bertsotan... Bertsotan gazteik hasi nitzen, baiño plazatan-ta ibiltzen ez nitzen oso gazteik hasi.
- Ta umetan? Ume-umetatik hasi ziñen bestela bertson inguruan?
- Ba beti zea hori. Aittona zana emen zan gure etxin, e... Negu bat oso txarra izen emen zan, ta ardiyek behintzet akabau´re dexente in emen zien ta geldiu zinak´e, biziik geldiu zinak´e, exkaxak, eta haiei hamabi bertso jarri emen zizten gure aittona zanak. Beatzi puntuko bertsuk e? Hamabi bertso. Ta gure aitte ta osaba ta... bai, haren semiek, hiru zien ta, hiru seme ta alaba zittun, ta iñok ikixi ez! Haren bertsoik.
- Ta ordun iñun ez zien geatuko.
- Kito. Ta kriston penie dauket nik horrekin e? Ta nik...
- Ta ordu arte sekula ibili gabea zan bea bertsotan? Orduntxe jarri zittun?
- Hura [zaille]... lotsatiye o, atrebitzen ez zana haure´re. Nik mutil koxkorra siheskan ta: "aittite, kantau! Udarregiñak eo". Udarregi famosue zan ta. Beriek ez zittun behin´e kantau nahi izeten, txarrak ziela ta.

11. Bertsotarako zaletasuna, baina jendaurrean aritzeari beldurra

- **Erref:** AZP-027/016
- **Iraupena:** 0:02:04. **Hasi:** 00:28:02. **Bukatu:** 00:30:06
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Pertsonaia ezagunak
- Aisia » Kultura » Bertsolaritza

Laburpena:

Lagunartean bertsotan egiteko ohitura gaztetatik eduki izan du. Plazan bertsotan aritu behar izaten zuenean, lotsa eta urduritasuna izaten zuen; askotan ez zen atrebitzen joaten ere.

12. Bertsotako lagunak

- **Erref:** AZP-027/017
- **Iraupena:** 0:01:01. **Hasi:** 00:30:06. **Bukatu:** 00:31:07
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Pertsonaia ezagunak
- Aisia » Kultura » Bertsolaritza

Laburpena:

Bertsotan zer lagun izaten zituen aipatzen du.

13. Bertsotan ikasteko modua: bertsopaperak

- **Erref:** AZP-027/018
- **Iraupena:** 0:01:12. **Hasi:** 00:31:07. **Bukatu:** 00:32:19
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Bertsolaritza
- Aisia » Kultura » Irakurtzea

Laburpena:

Lehen bertsopaperekin ikasten zuten bertsotan. Feriatan saltzen zituzten, eta zer gairi buruzkoak izaten ziren aipatzen du.

14. Garai hartako sona oneko bertsolariak

- **Erref:** AZP-027/020
- **Iraupena:** 0:00:44. **Hasi:** 00:32:31. **Bukatu:** 00:33:15
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Bertsolaritza

Laburpena:

Udarregiren bertsoak buruz ikasitakoa da. Ordurako Udarregi eta Pedro Mari Otaño sona oneko bertsolariak ziren.

15. Etxekoen jarrera bertsolari hasi zenetik gerora

- **Erref:** AZP-027/021
- **Iraupena:** 0:02:55. **Hasi:** 00:33:15. **Bukatu:** 00:36:10
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- Aisia » Kultura » Bertsolaritza

Laburpena:

Etxean esan zuenean bertsolari sartu nahi zuela, errieta galantak entzun behar izan zituen. Izan ere, bertsolariak berandu iristen ziren etxera, eta hori bekatua zen garai hartan. Gerora, ordea, dirua irabazten hasi zen bertsotan egiteagatik, eta orduan amak begi onez ikusten zuen.

16. 'Uztapide' eta Azpillagaren bertsoak

- **Erref:** AZP-027/022
- **Iraupena:** 0:02:13. **Hasi:** 00:36:10. **Bukatu:** 00:38:23
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kantak » Bertsoak
- Aisia » Kultura » Bertsolaritza

Laburpena:

<p>Manuel Olaizola Uztapiderekin bertsotan plazan aritzeko

eskaini zioteneko asteburuaz hitz egiten du. Egun hartan Uztapide eta Azpillagak botatako bertsoak gogoan ditu oraindik, eta abestu egiten ditu.</p>

17. Lehen bertsoan erabiltzen zituzten gaiak

- **Erref:** AZP-027/023
- **Iraupena:** 0:01:28. **Hasi:** 00:38:23. **Bukatu:** 00:39:51
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Bertsolaritza

Laburpena:

<p>Orduko bertsoak adarra jotzeko izaten ziren gehienbat. Hala ere, gai serioez ere jarduten zuten. Uztapidek eta Basarrik elkarri zer-nolako bertsoak botatzen zizkieten kontatzen du.</p>

Transkripzioa

- Ordun kantatzen zien bertsoak gehio adar jotzekok izango zien, ez?
- Bai, asko, ordun hori gehio zan oain baiño, bai.
- Gai seriotan-ta jarduten ziñeten ordun´e?
- Bai, bai, ordun´e jarduten zan, bai. Bai, jarduten zan, bai. Gero Baxarri zen, zea, hola alkarri gaixki esatien kontrakue ta, hola, gizon formal hoitakue. Ta harek asko zeatu zun, kanbiyau zun bersotie. Baiño haiek´e esaten zixkoen alkarri earrak, e? Uztapidek eta Baxarrik-eta e? Nik ez dauzket hola bertsoak osuk gogun, baiño Uztapidek Baxarriri esandako gauzak eta, baserritarra zala behintzet bea´re ta baserrire hola bertsoa junda ta, “honen etxien apenas dagon ez gurdi eta ez lera, animali bat bakarra eta honutz etorri da bera”. Hori aituta eongo zea beharbada. E?
- Ez, ez!

18. Bertsoara joateko garraiobidea

- **Erref:** AZP-027/024
- **Iraupena:** 0:01:41. **Hasi:** 00:39:51. **Bukatu:** 00:41:32
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Bertsolaritza

Laburpena:

Bertsotara joaten zirenean, zer garraiobide erabiltzen zuten azaltzen du: hasieran, motorra; gerora, autoa. Berak kotxea duela 40 urte inguru erosi zuen lehenengo aldiz.

19. Bertsoarako lekuak eta lagunak

- **Erref:** AZP-027/025
- **Iraupena:** 0:01:44. **Hasi:** 00:41:32. **Bukatu:** 00:43:16
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Bertsolaritza

Laburpena:

<p>Bertsotan Gipuzkoan ibiltzen ziren normalean, baina Bizkaira, Iparraldera eta Nafarroara ere joaten ziren. Orduan zer bertsolarirekin ibiltzen zen gehienbat azaltzen du: Lasarte, Lazkano, Lizaso, Egileor...</p>

20. Lehengo bertso-saioak nola prestatzen eta nolakoak izaten ziren

- **Erref:** AZP-027/026
- **Iraupena:** 0:02:03. **Hasi:** 00:43:16. **Bukatu:** 00:45:19
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Zinema
- Aisia » Kultura » Bertsolaritza
- Herria, azpiegitura » Berrikuntzak » Aparatuak, objektuak

Laburpena:

<p>Lehen ez zegoen telefonorik, baina hala ere, nola edo hala abisuak iristen zitzaizkion bertsotara joateko. Lehen balkoitik balkoira kantatzeko ohitura bazegoen. Lehen bertso-saioak zinetan izaten ziren.</p>

Transkripzioa

- Ta normalen nundik deitzen zizuen? Esan nahi det, udaletxetik o ezaunek o...
- Hori da gogorra! Ez telefonoiken ta ez maria santisimaiken. Ta nik abixue hartzen nun ordun nola-hala. Nik ez dakit nola baiño hartzen nun nik abixue!
- Tabernan baten o nunbaiten uzten zizuen?
- Oain baiño gehio. Ez, ez, honea berta abixue. Nola-hala alleatzen zin. Elgoibarko San Lorentzotik-ta´re propiyo handik erten ta hona, zea, kamiñoik ez zeon artin´e.
- Abixue ematea zuretzako.
- Bai. Bai, bai.
- Eta gero aittau dezu bertson bat o kantau zuna balkoitik balkoira kantau zula o. Lehen aittau dezu.
- Ze, Azpillaga? Azpillagak eta zeak, Uztapidek.
- Ordun balkoitik balkoira kantatzeko ohitura bazan?
- Bazan, bai. Ta ondiken´e Axkoitin-ta segitzen diyo ohitura horrek!
- Bai, ta Getarin ta... itten da.
- Bai, bai. Axkoitiyen neu´re izenda nao behin baiño gehiotan, ta, uste det oindiken´e segitzen diyoela. Bai, urtin e... udaberriyen izeten da hori zea baten, jai eguarte baten. Ez dakit zenbat aldiz izen naizen, baiño izenda nao behin baiño gehiotan neu´re.
- Eta, normalen, bertso saioak ze izaten zien, plazan, antzokin, o... Nun izaten zien?
- Hor bolara bat izen zan, dexente, oain dala urte asko, zinetan-ta, jai eguardiyeen bertso saioak jartzen zituen bolara bat´e izen zan. Nik Xalbador ta Mattin zanakin ta hor behe alde hortan, Errenteri alde ta hor zerien ta, hola, jai eguardiyeen, bolara bat izen zan. Oain ez det aitzen hori!
- Eta entradaik kobratzen zan? O libre izaten zan?
- Berez kobra ingo zebe, kobrauko zebe.

21. Gustuko bertsolari zaharrak

- **Erref:** AZP-027/027
- **Iraupena:** 0:00:42. **Hasi:** 00:45:19. **Bukatu:** 00:46:01
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Bertsolaritza

Laburpena:

Bertsolari zaharren artean, gustukoenak zein zituen aipatzen du Joxek.

Transkripzioa

- Zuk gustokona? Bertsolari gustokona, lehengo zahar haietan, zein zenun?
- Lehengo zaharretan?
- Bai.
- Ba... Ze esango dizut ba?
- Bueno, bat igual ez da izango, bat baiño gehio izango die, baiño...
- Bai, bai. E... Baxarrikin ez nitzen... Baxarrikin askotan tokau nitzen, baiño beakin bakarrik [eguna] oso gutxitan pasa nun Baxarrikin. Uztapekin zeoze gehio. Ta haiek biyek'e bai, oso gustokuek. Ta Latasa're bai, ze esanik ez, gustokua. Ta Joxe ta, Lizaso ta! Danak gustokuk.
- Bakoitzek zea bat, ezta?
- Bai.
- Bakoitzek gauz bat eukiko zun.

22. Bertsolariek erabiltzen zituzten doinuak

- **Erref:** AZP-027/028
- **Iraupena:** 0:01:30. **Hasi:** 00:46:01. **Bukatu:** 00:47:31
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Bertsolaritza

Laburpena:

Lehen bertsolariek zer-nolako doinuak erabiltzen zituzten azaltzen du.

Lehengo bertsolariek gaur egungokoek baino ahots hobea zeukatela uste du Joxek.

23. Gaia jartzeak ekarritako aldaketak

- **Erref:** AZP-027/029
- **Iraupena:** 0:01:19. **Hasi:** 00:47:31. **Bukatu:** 00:48:50
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Bertsolaritza

Laburpena:

Lehen zortziko handian abesten ziren bertsoak, eta gairik gabe ibiltzen ziren. Gaia jartzen hasi zirenean, beldurrez egoten ziren. Baina azkenean, gaia jartzea nahiago izaten zuten.

24. Bertsolari batzuk atxilotu zituztenekoa

- **Erref:** AZP-027/030
- **Iraupena:** 0:02:10. **Hasi:** 00:48:50. **Bukatu:** 00:51:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Bertsolaritza
- Lanbideak » Polizia

Laburpena:

Gerra garaian oraindik ez zen Joxe bertsotan ibiltzen. Baina gerra ostean, Francoren diktaduran, behin atxilotu egin zituzten zenbait bertsolari, eta bera haietako bat. Orduko komeriak kontatzen ditu: guardia zibilek beste Joxe Agirre bat eraman zuten lehenengo komisariara, eta akatsaz konturatu zirenean, hura etxera eta Joxe bera barrura joan ziren. Joxe Lizasorekin batera jarri zuten gelan bukaeran, eta orduan lasaiago egon zen.

25. Antiguako kuartelean bizitakoak

- **Erref:** AZP-027/031
- **Iraupena:** 0:02:00. **Hasi:** 00:51:00. **Bukatu:** 00:53:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Bertsolaritza
- Lanbideak » Polizia

Laburpena:

Antiguako kuartelean egon ziren atxilotuta, eta poliziek zer-nola tratatu zituzten kontatzen du. Beren delitua autoritatez gaizki esaka ibiltzea omen zen.

26. Kuarteletik ateratakoan, oraindik sustoa gainean

- **Erref:** AZP-027/032
- **Iraupena:** 0:01:40. **Hasi:** 00:53:00. **Bukatu:** 00:54:40
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Bertsolaritza
- Lanbideak » Polizia

Laburpena:

Kuartelean libre utzi zituzten, eta "Bodegón Alejandrora" joan ziren jatera. Han janari onenak atera zizkieten, baina halako sustoa pasa eta gero, ez zeukaten jateko gogorik ere. Azkenean, jandako denak bota zituen gauean.

27. Beren delitua zein izan zen

- **Erref:** AZP-027/033
- **Iraupena:** 0:01:10. **Hasi:** 00:54:40. **Bukatu:** 00:55:50
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Bertsolaritza
- Lanbideak » Polizia

Laburpena:

Zergatik salatu zituzten azaltzen du.

28. Atxilotu zituztenean pasatakoak

- **Erref:** AZP-027/034
- **Iraupena:** 0:03:18. **Hasi:** 00:55:50. **Bukatu:** 00:59:08
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Bertsolaritza
- Lanbideak » Polizia

Laburpena:

Guardia zibilak atzetik zituela abisua pasa ziotenean, etxean egon zen, eta irten egin zen emaztea eta umeak negarrez utzita. Guardia zibilak zain zituen, eta Antiguara eraman zuten. Bertan pasatakoak kontatzen ditu.

29. Txapelketetako epaimahaia

- **Erref:** AZP-028/001
- **Iraupena:** 0:01:40. **Hasi:** 00:00:00. **Bukatu:** 00:01:40
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Bertsolaritza

Laburpena:

Bera epaimahai izan bazen ere, bera izan baino lehenago lan hartan aritu zirenak aipatzen ditu. Denak ez ziren bertsolariak izaten, baina bai bertsozaleak.

30. Emakume bertsolaririk bai?

- **Erref:** AZP-028/002
- **Iraupena:** 0:01:45. **Hasi:** 00:01:40. **Bukatu:** 00:03:25
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Bertsolaritza
- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Genero berdintasuna

Laburpena:

Emakume bertsolaririk ez zuen berak ezagutu plazan, baina baten bat zegoenik entzun zuen.

31. Lazkao Txikiri buruz

- **Erref:** AZP-028/003
- **Iraupena:** 0:01:54. **Hasi:** 00:03:25. **Bukatu:** 00:05:19

- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Pertsonaia ezagunak
- Aisia » Kultura » Bertsolaritza

Laburpena:

Buru azkarreko gizona omen zen Lazkao Txiki. Saio guztietan uzten zuen bere arrastoa.

32. Lazkao Txiki, jenio biziko gizona

- **Erref:** AZP-028/004
- **Iraupena:** 0:01:29. **Hasi:** 00:05:19. **Bukatu:** 00:06:48
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Pertsonaia ezagunak
- Aisia » Kultura » Bertsolaritza

Laburpena:

Lazkao Txikiri adarra askotan jotzen bazioten ere, jenio bizikoa zen. Behin txisteren bat kontatzeko eskatu eta "konta itzak hik" erantzun eta alde egin zuen elkartetik.

33. Lazkao Txiki euskararekin kezkatuta

- **Erref:** AZP-028/006
- **Iraupena:** 0:01:28. **Hasi:** 00:07:31. **Bukatu:** 00:08:59
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskararen egoera
- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Pertsonaia ezagunak
- Aisia » Kultura » Bertsolaritza

Laburpena:

Euskararekin kezkatutik ibiltzen zen Lazkao Txiki, eta behin Lakuntzara bertsotan joan eta bertako andereiñoarekin izan zuen ika-mika.

34. Bertsolari ezagunen ezaugarriak

- **Erref:** AZP-028/008
- **Iraupena:** 0:01:27. **Hasi:** 00:10:11. **Bukatu:** 00:11:38
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Pertsonaia ezagunak
- Aisia » Kultura » Bertsolaritza

Laburpena:

Martin oso joatalaria zen, Xalbador, berriz, serioa. Uztapide jatorra eta gozoa.

35. Lasarte zuen eredutzat

- **Erref:** AZP-028/009
- **Iraupena:** 0:01:06. **Hasi:** 00:11:38. **Bukatu:** 00:12:44
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Pertsonaia ezagunak
- Aisia » Kultura » Bertsolaritza

Laburpena:

Joxek eredugarria zen bertsolaritzat zuen Lasarte.

36. Estuasunak gaiaren inguruko bertsoa egiteko

- **Erref:** AZP-028/010
- **Iraupena:** 0:01:46. **Hasi:** 00:12:44. **Bukatu:** 00:14:30
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Pertsonaia ezagunak
- Aisia » Kultura » Bertsolaritza

Laburpena:

Irakurritakoa baino, entzundakoa erabiltzen zuten jarritako gaiaren inguruan bertsoa botatzeko.

37. Joxe Lizasorekin gustura bertsotan

- **Erref:** AZP-028/011
- **Iraupena:** 0:01:47. **Hasi:** 00:14:30. **Bukatu:** 00:16:17
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Pertsonaia ezagunak
- Aisia » Kultura » Bertsolaritza

Laburpena:

Joxe Lizasorekin urte mordoa pasa zuen bertsotan. Lagun ona ere bazuen.

38. Gaur egungo bertsolariak

- **Erref:** AZP-028/012
- **Iraupena:** 0:01:37. **Hasi:** 00:16:17. **Bukatu:** 00:17:54
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Pertsonaia ezagunak
- Aisia » Kultura » Bertsolaritza

Laburpena:

Mendiluze, Arzallus, Irazu... aipatzen ditu Joxek.

39. Bertsolaritza zertan aldatu da?

- **Erref:** AZP-028/013
- **Iraupena:** 0:01:33. **Hasi:** 00:17:54. **Bukatu:** 00:19:27
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Bertsolaritza

Laburpena:

Bertsoen doinua eta luzeerarako joera hori aldatu egin dela dio, lehen doinu asko erabiltzen baziren ere, neurriak beti antzekoak ziren.

40. Uztapideren bertsoa

- **Erref:** AZP-028/014
- **Iraupena:** 0:01:56. **Hasi:** 00:19:27. **Bukatu:** 00:21:23
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kantak » Bertsoak
- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Pertsonaia ezagunak
- Aisia » Kultura » Bertsolaritza

Laburpena:

Uztapidek poto egindako bertsoa, bederatzi puntukoa egiteko eskatu baitzioten.

41. Bederatzi puntuko bertsoen kontra

- **Erref:** AZP-028/015
- **Iraupena:** 0:01:09. **Hasi:** 00:21:23. **Bukatu:** 00:22:32
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Bertsolaritza

Laburpena:

Eibarren bederatzi putuko bertsoa egiteko eskatu, eta Basarrik eta Uztapidek protesta egin zuten, eta ez zuten bertsoa bota. Mitxelenak, ordea, bertsoa bota zuen.

42. Bertsotan, batuan ala euskalkian?

- **Erref:** AZP-028/016
- **Iraupena:** 0:00:52. **Hasi:** 00:22:32. **Bukatu:** 00:23:24
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskalkia, herri hizkerak, euskara batua
- Aisia » Kultura » Bertsolaritza

Laburpena:

Joxek nahasketa bat egin ohi zuen bertsotarako, lazkaoko hizkeraren eta batuaren artekoa.

43. Bertso batzuk ulertu ez

- **Erref:** AZP-028/017
- **Iraupena:** 0:01:46. **Hasi:** 00:23:24. **Bukatu:** 00:25:10
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskalkia, herri hizkerak, euskara batua
- Aisia » Kultura » Bertsolaritza

Laburpena:

Batzuetan gaur egungo bertsolarien bertsoa ulertu gabe gelditzen dela dio Joxek. Garai bateko bertsolaritza "tabernakoagoa" omen zen.

44. Imanol Lazkanorekin batera

- **Erref:** AZP-028/018
- **Iraupena:** 0:02:43. **Hasi:** 00:25:10. **Bukatu:** 00:27:53
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Pertsonaia ezagunak
- Aisia » Kultura » Bertsolaritza

Laburpena:

Herrietara bertsotan joaten berandu xamar hasi zen Joxe, gazteagoa zen Imanol Lazkanorekin batera, alegia.

45. Goizetik goizera Santa eskean

- **Erref:** AZP-028/019
- **Iraupena:** 0:03:03. **Hasi:** 00:27:53. **Bukatu:** 00:30:56
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Jai-giroa » Santa Ageda
- Aisia » Kultura » Bertsolaritza

Laburpena:

Santa eskean urte mordoa pasa ditu Joxek, askotan hogeita lau orduz ere aritzen zen bertsotan.

46. Ustekabeen Andoaingo asto-janera

- **Erref:** AZP-028/020
- **Iraupena:** 0:01:21. **Hasi:** 00:30:56. **Bukatu:** 00:32:17
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Bertsolaritza
- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak

Laburpena:

Iluntze batean, ohera zihoala, Lazkanok Andoainera eraman nahi zuen Joxe, asto-jana zela eta.

47. Bertsolarien arazoa: eztarria

- **Erref:** AZP-028/021
- **Iraupena:** 0:01:35. **Hasi:** 00:32:17. **Bukatu:** 00:33:52
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Bertsolaritza

Laburpena:

Eztarria izan zuen arazo sarritan Joxek.

48. Loiolako abadearen indizioa

- **Erref:** AZP-028/022
- **Iraupena:** 0:01:12. **Hasi:** 00:33:52. **Bukatu:** 00:35:04
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Medikuak eta sasimedikuak
- Aisia » Kultura » Bertsolaritza

Laburpena:

Eztarria zela eta, bertso saioak baino lehen indizioa hartzera joaten zen Joxe. Behin Imanol Lazkano ere eraman zuen.

49. Altutik abesteko ohitura

- **Erref:** AZP-028/023
- **Iraupena:** 0:01:27. **Hasi:** 00:35:04. **Bukatu:** 00:36:31
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Bertsolaritza

Laburpena:

Mikrofono gabe hamaika aldiz abesten zuten, horregatik garrantzitsua zen eztarri ona izatea.

50. Bertsoak

- **Erref:** AZP-028/025
- **Iraupena:** 0:01:31. **Hasi:** 00:38:59. **Bukatu:** 00:40:30
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kantak » Bertsoak

Laburpena:

<p>Aitziber Otegi (elkarrizketatzaileari) botatako bertsoak.</p>

CC-by-sa | Ahotsak.eus

Badihardugu Euskara Elkarte

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com